

EUDEL-EUSKALTZAINDIA

**TOPONIMIA IKASTAROA:
HIRITOPONIMIAREN NORMALIZAZIOA**

Bilbo, 1999-VI-04

HERRIETAKO TOPONIMIA NORMALIZAZIOARI BURUZKO JARDUNALDIA

Bilbo, 1999-VI-04

*Angel Iturbe,
EUDEL-eko euskara arduraduna*

Egun on guztioi:

Dakizuenez, gaur bildu gaituen hitzaldia, Euskadiko Udalen Elkartek eta Euskaltzaindiak elkarrekin egindako kolaborazio-akordioaren emaitza da. Hitzarmen honek, Euskal Autonomia Erkidegoko herri, auzo eta kaleen izenen normalizazioa izango du helburu nagusi.

Lehen aipatutako hitzarmenaren helburua, datu-base bat eratzea zen, haren bidez gure herrien izenak, auzoenak, kaleenak... normalizatzeko, beti ere, euren jatorrizko izenen historiari eta tradizioari begira.

Lehendik Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak bide beretik gauzatutako beste batzuei gehitu beharreko ekimena dugu hau ere, eta lan hura eguneratu eta osatzea du helburu.

EUDELen ikuspegitik, hitzarmen hau, horren ondoriozko ikerketa-lana eta gaurko jardunaldi hau egitea bera, gure herriei eskaintzen diegun zerbitzua da.

Hizkuntza baten normalizazio bideak, euskarak egiten diharduenak bezala, lan eremu ugari ditu. Gaur aztertzen dugun hau, garrantzitsuenetako bat dela esan behar.

Hizkuntzak legearen aldetik eta gizarte mailan jasan izan duen diskriminazioak eragin du luzaroan bazterturik egotea, eta horren ondorioz, toponimia ere, kultur ondare garrantzitsua izan arren, erabat lausotuta egon den esparrua dugu.

EUDELen ustez, altxor hori berreskuratu eta eguneratzeko aukera paregabea dugu, gizarte moderno honen baitan euskarak merezi duen tokia izan dezan.

Gaurko Jardunaldi honek asko lagunduko digu herrietako, auzo eta kaleen lekuizenak finkatzen. Udal guztien eskura egongo da datu-base berritu hau.

Zalantzarik gabe, gure iraganarekin, gure herri eta hiriekiko memoria goxo eta kutunenarekin dugun zorra dugu hau, baina batez ere, etorkizunari begira dugun betebeharrak morala: gure ondorengoei historiaren eta tradizio zaharren erreferente garbiak utzi beharra.

Eskerrik asko!

JORNADA SOBRE TOPONIMIA Y NORMALIZACIÓN DE LAS DENOMINACIONES DE ENTIDADES LOCALES, BARRIOS Y CALLES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA VASCA

*Salón de Actos de EUDEL.
4 de junio, 1999, Bilbao*

Angel Iturbe

Egun on guztioi:

El objeto de este *Convenio* —entre Euskaltzaindia y EUDEL— era la creación de una base de datos que permitiera regularizar y normalizar los nombres de todos nuestros municipios, barrios y calles, atendiendo a la historia y tradición que dieron lugar a sus respectivas denominaciones.

Esta iniciativa viene a sumarse a anteriores acciones en el mismo sentido, llevadas a cabo por la Secretaría General de Política Lingüística del Gobierno Vasco, y pretende actualizar y completar ese trabajo.

Desde la perspectiva de EUDEL, dicho *Convenio*, la labor de investigación subsiguiente, y la propia celebración de esta Jornada supone un servicio más a nuestros municipios.

El proceso de normalización de una lengua, como el que el euskera está experimentando, mantiene múltiples vertientes de trabajo. Y ésta es una de las más importantes.

La discriminación legal y social de una lengua, que hasta la llegada de la democracia no contaba con el reconocimiento de los poderes públicos, representó durante largo tiempo una oportunidad para el olvido, y facilitó que se difuminara, también desde el punto de vista toponímico, esa valiosa herencia cultural.

Desde el punto de vista de EUDEL, es ésta una oportunidad para la recuperación de ese legado y para su actualización dentro de una sociedad moderna donde al fin la lengua vasca ve reconocido el lugar que se merece en el seno de su propia tierra.

Jornadas como la de hoy permiten proporcionar a nuestros Ayuntamientos un instrumento para la fijación definitiva de las denominaciones de sus mu-

nicipios, de sus barrios y de sus calles más tradicionales. La nueva base de datos se encontrará a disposición de las entidades locales.

Se trata, sin duda, de una deuda que tenemos con nuestro propio pasado, con la memoria, íntima y entrañable, de nuestros pueblos y ciudades, pero también, y quizás sobre todo, una obligación moral de cara al futuro: la necesidad de entregar a las futuras generaciones el referente claro de su historia y de sus más antiguas tradiciones.

Eskerrik asko.

I. TOPONIMIA IKASTAROA

Bilbo, EUDEL, 1999-VI-04

*Henrike Knörr,
euskaltzain oso eta
Euskaltzaindiko Onomastika batzordeburua*

Dakizuen bezala zientzia eta zatiketa hori ez dator gaizki bereizteko antroponimia eta toponimia. Oso eroso da bereizketa, baina horrek ez du beti ongi funtzionatzen, zeren eta, dakigun bezala, alde batetik dira pertsona izenak eta bestaldetik, leku izenak eta gero eguneroko bizitzak erakusten digu zenbat zalantza dauden. Eta gehiago agian gure hizkuntzan. Beraz, toponimia ez da noski matematika, eta euskarak bizi izan duen, eta oraindik ere zoritxarrez bizi duen, egoeran gauzak ez dira bat ere argi eta zalantza gabe. Gero, bestalde, aipatu nahi nuke nire hitz labor hauetan euskaldun askok badituztela konplexuak, beraz, dakizuen bezala, askok uste dute munduan badirela hizkuntza serioak eta gero badirela hizkuntza ez hain serioak edo serio ez direnak eta, zer esanik ez, askorentzat euskara ez da oraindik serioa. Ba gure nahia da hain zuzen ere, euskarak izatea besteek duten duintasuna eta seriotasuna nahi baduzue eta ofizialtasunak ematen dio neurri handi baten seriotasuna. Euskaltzaindian kezkatuak gaude eta zuek ere noski askok gutxienez kezka hori baduzue guk bezalaxe. Beraz, ikusten dugu bai, badaudela legeak, baina gero legeak ez dira behar bezala finkatzen. Erakundeen artean ez dagoela behar beste loturarik eta horrek orok bultzatu gintuen zenbait urrats egitera eta EUDELi esker egiten da lehenbiziko saio hau eta zinez espero dut denontzako emankorra gertatuko dela.

Gero, bestalde, eta hau ere esan behar dut, legeak ez dira nazionalistak edo ez nazionalistak edo espainolistak, legeak gure gaineratik daude eta hori zenbaitek beharko lukete ulertu. Orduan, Angel Iturbe jaunak esan duen bezala, gure asmoa, Euskaltzaindiarena, EUDELekin batera, datu base bat egitea, datu base hori egiten hasi gara honezkero, ahalik eta zerbitzu hobeak eskeintzeko Euskal Herriko udal guztiei eta Euskal Herriko udal esaten dudanean da, noski, Euskal Herria zentzu zabalean. Beraz, berriro ere EUDELi eskerrak eta orain, besterik gabe, hasiko naiz hizlariak aurkezten. Eskatu didatenez gero, erdaraz sarreratxo honen laburpena egingo dut.

* * *

Quiero dar la bienvenida a todos. Francamente la Comisión de Onomástica, que empezó a caminar en 1984, aunque las cuestiones de toponimia y onomástica están presentes desde la fundación de la Academia en 1918, ha hecho, como digo, su trabajo. Nosotros comprendemos nuestra Comisión como un seminario en el que vamos a aprender, recibimos cantidad de sugerencias, aprendemos y ofrecemos nuestros servicios y naturalmente este contacto con los ayuntamientos y con los poderes públicos es de lo más importante, máxime cuando, como he dicho antes, estamos francamente preocupados porque desde que el euskara es oficial, por lo menos en las cuatro provincias, sin embargo suceden algunas cosas que no nos gustan, por decirlo así de claro. Hay una cierta desconexión interinstitucional, hay también el caso omiso que se hace en el sector público, lo cual es gravísimo, y también en el sector privado, que también creo que es grave, con respecto a la legislación y esto también tiene que ver con la toponimia y la onomástica en general.

Por consiguiente es el momento de dar unos pasos en este sentido, es el momento de ofrecer con nuestros medios modestos y gracias al amparo de EUDEL, unos servicios "on line" que se dice en un plazo corto, para que en todos los puntos de Euskal Herria se tenga un acceso fácil a una base de datos que estamos construyendo. Yo espero que esto sea el inicio de una labor útil para todos. Dentro de unas semanas habrá una continuación de las jornadas de hoy en Etxarri-Aranaz y espero que nos veamos con alguna frecuencia. Y reitero, y esto no es falsa moneda, la actitud totalmente abierta de Euskaltzaindia, para recibir toda clase de sugerencias y críticas, también, en favor de nuestra lengua, esta lengua que contrariamente a lo que piensan algunos, no es una lengua no seria, sino que quiere ser una lengua seria con la misma dignidad de otras lenguas de nuestra Autonomía. Gracias a todos y que todo resulte bien y paso a presentar a los oradores sin más.

TOPONIMOEN OFIZIALTASUNAZ ETA ADMINISTRAZIO ARTEKO APLIKAZIO ARAZOEZ (I)

Bilbo, 1999-VI-04

*Jose Luis Lizundia,
idazkariorde-kudeatzaile
eta Onomastika batzordekidea*

- Toponimoen legeriaz.
- Aginte desberdinen eskumenez.
- Toponimia Batzordea.
- Euskararen Zerbitzu Teknikoak.
- Udal Legea eta bere garapena.

Euskal toponimoen ofizialtasunak ez ditu toki gehienetan izan dituen eta oraindik dituen aukerak baliatu. Lehendabizi, transizio garaian, Ekonomia Ministerioaren 1978ko urriaren 18ko Agindua (1. eranskina) izan zen. Horrekin baliatu ziren, lehen udal demokratiko zenbait “entidad de población” maila zeukaten herri eta auzo nagusien izenak euskaraz jartzeko. Egia esan, zoritxarez, udal gutxi baliatu zen Euskal Herrian, askoz gehiago Katalunian, gaztelaniazko grafia edo eratik, euskaldun erara jartzeko.

Geroztik, Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskararen Erabilerako Oinarriko Legearen 10. artikulua baliatu dira lehendabizikoz gure historia garai-kidean, euskaraz ganoraz izena jartzeko. Gehienok jakingo duzue, baina komenigarria da, uste dut, azpimarratzea denontzat artikulua horrek zer dion: (2. eranskina).

Horrez gain, udalen eta kontzejuen izenak euskaraz jartzeko, Javier Caño Lehendakaritza Saileko aholkulariak eta biok adostutako 1982.eko abenduaren 12ko 271/1983 Dekretua, zeinetan Euskal Autonomia Erkidegoko udal izenak aldatzeko prozedura finkatu baitzen (3. eranskina). Geroago, Euskal Autonomia Erkidegoko udal gehienek, Gipuzkoan bat izan ezik, 4 Bizkaian, Araban gehiago, udal izen gehienak euskal toponomastikaren arauen arabera ofizialdu dira. Geroago, Bizkaiko Batzar Nagusiek lege eta dekretu hori garatu dute eta beraren bidez ofizialdu dira zenbait izen eta baita ere Araban kontzeju mordo bat. Esan behar da Araban eta Nafarroan udal azpiko kontzeju izeneko erakundeak bizirik dirautela; Gipuzkoan ez da bat ere gelditzen eta Bizkaian 3 bakarrik eta hirurak Urduñan. Une honetan Euskaltzaindiaren Onomastika ba-

tzordea, hilerro-hilerro ari da bere irizpen ofizialak ematen Arabako kontzeju izenak euskalduntzeko. Nafarroan legeria beste era batera dago, euskararen ofizialtasuna hiru era desberdinetan dagoen bezalaxe. Hala eta guztiz ere Nafarroako ekialdean ia udal izen guztiak euskaldundu dira eta baita kontzejuenak ere.

Zer gertatzen da herri izen ez direnekin? Alde batetik, errepideen eskumena (kompetentzia) Foru administrazioena, Diputazioena, dela jakin behar da. Horregatik bada, komenigarria da kontuan izatea Bizkaian bederen, Batzar Nagusiak onartuta, foru errepideen 1993/2 Foru Araua indarrean dagoela (4. eranskina). Ondorioz, Bizkaiko errepide guztiek euskal izena daukate ezbairik gabe. Jakingarria da, bestalde, Bizkaiko Diputazioaren Euskara Zerbitzu Atalak Euskaltzaindiarekin hitzarmen bat daukala eginda, alegia, aholkularitza bat zuzenki Diputazioari dagozkion izenatarako emateko.

Zer gertatzen da udalaren eskumenean dauden izenekin? Bistakoa da Euskararen Legearen 10. artikulua arabera, hiribideak, kale eta auzoen izenen eskumena ez dela Euskal Jaurilaritzarena, ez Foru Diputazioena, gutxiago Madrilgo Gobernu Zentralarena, baizik eta udalena. Beraz, hemen udalek daukate kale eta auzategi baten izena jartzeko ahala. Besterik da, horretaz baliatzea izenak euskalduntzeko eta nolatan. Ez naiz sartuko lantaldearen euskal toponimia normalizatzeko irizpideetan, hori Mikel Gorrotxategiri eta Patxi Salaberriri dagokie. Dena dela, gero elkarrizketetan aterako da, seguru asko, gai hau. Euskaltzaindiak luzaroan dihardu behin-behingo edo erabateko irizpenak ematen, kasuan kasuko eta orokorrak ere. Udalbatzak edo dagokien batzorde edo udal zerbitzuek, era desberdinetan jokatu dute arazo honetan. Batzuetan, zorionez, euskal sena izan dute, konturatu baitira hizkuntzaren arazo zientifiko eta tekniko bat dela, eta beraz, adituen esku utzi behar dela. Bestetik, euskal toponimia berriaren eta udal bakoitzaren ondare galduezina dela. Ondorioz, neurri zehatzak hartu eta garatu behar direla.

Hala eta guztiz ere, toponimoen ofizialtasunaz administrazio arteko irizpide eta arazo zenbait sortu dira. Gaia agortzeko asmorik gabe: udal askotan toponimo berberak errepikatzen dira, bereziki, hagiotoponimoak, alegia, santu izenenak, pertsonaia famatuena eta beste zenbait izen entzutetsu, hala nola, *Askatasunaren* gisakoak; pertsonaia historikoetan: *Jose Migel Barandiaran* eta abar. Orduan nola jokatu? Informazioa eskuratu beharko litzateke irizpide orokor eta antzerakoetan jokatzeke. Hagiotoponimoetan kontutan izan beharko litzateke duela zenbait urte Euskaltzaindiaren hileroko batzar baten Jose Maria Jimeno Jurio euskaltzain ohorezko eta nafar historiagileak egindako txostena (5. eranskina). Beraz, hagiotoponimo batek, leku izena, toponimoa, galduarazi du Santu izenaren ondoren, eta ia-ia beti dago toponimoa. Komenigarria da horregatik toponimoa berreskuratzea, besteak beste, *San Roke*, *San Pedro* eta antzerakoak Euskal Herrian ziento bat tokitan daudelako eta, atzekoak, bigarren toponimoak, adierazten du nongoa den zehatz eta garbi.

Aginte desberdinen eskumenak administrazio arteko barne komunikaziorik eza agertzen du maizegi, alegia, foru administrazioak erabakitako errepede izen baten berri ez jakitea udal administrazioak, edo udal eta foru administrazioek jarritakoa nahiz eta Euskl Jaurlaritzak ez erabili. Beste horrenbeste Administrazio Zentralaren eskumen dauden toponimoen kasuetan, hala nola, portu, aireportu, RENFE eta antzerakoetan. Esan behar da, zorionez, bai RENFE eta bai FEVE Estatuaren enpresa publikoak saiatu direla beraien geltokiak euskal toponimoz zuzenki jartzen. Enpresa publikoak aipatukeran, gure kasuan ere, bai Eusko Trenbideak, Metroa eta beste ere hor ditugu eta horien arta ere izan beharko lukete beste mailetako administrazioek, hala nola, udal mailekoek.

Ikusi dugu nola Eusko Jaurlaritzaren EUSTATEk, Estatistikaren Erakundeak oraindik erabiltzen dituen auzo eta kaletegiak erdal erara. Ezagutzen ditut kasu ugari. Udal administrazioak euskaratuko dituela, ongi edo ez, besterik da, eta foru administrazioak behin baino gehiagotan errepedea beste era baten jarri duela, auzo batera doan foru errepede batetan.

Hau bideratzeko aspaldi Euskararen Aholku Batzordean geundela proposatu genuen Quebec-eko "Comision de Toponimie"ren antzera Toponimia Batzorde Ofizial bat sortzea, zeinek izango lukeen ez bakarrik eskumena, baizik eta Zuzendaritza Zerbitzu Tekniko bat erakunde desberdinen artean izenak ondo jartzeko. Gainera, aipatu ditudan administrazioez kanpo, badira beste erabiltzaile batzuk, hala nola, Hezkuntza Sailean dauden institutu, herri eskola edo ikastetxeak; liburugintza, zeinetan mapa eta testuetan herri izen eta auzo izenak oso era desberdinetan, batzuetan okerrean, ikusten baitira. Beraz, hori ere hausnartzekoa litzateke. Askok usteko du oraindik ezkor garena. Ez naiz ezkor, sekula santan ez baitugu izan hainbeste aukera euskal toponimoak ofizialtzeko. Besterik da administrazio arteko anabasa bat izatea edo aplikazioan arazoak egotea, edota, Euskararen Zerbitzu Teknikoak behar adinako itzala eta aitormena ez izatea. Oraindik udal askotan, gainontzeko zerbitzuak, hirigintzakoak eta beste batzuk adinako, bederen. Horiek urteetako legeria eta ibilbidea dute eta euskararen ofizialtasunak ez hainbeste. Badago beste arazo bat ere eta hau da: batzuek uste dute, agintariak errezenera jota, berehala, mendez-mendetan ofizialtasuna izan duen hizkuntza batek normalizatzea besterik gabe, eta euskal teknikariari edo aitortze gutxiko eta zerbitzu urriko itzultzaile bati eskatzea, berehala, euskal era jatorrean jartzeko eskatzea, eta honek ez duela besterik liburu bat kontsultatu edo Euskaltzaindira deitzea eta berehalako erantzuna eman ahal duela pentsatzea. Jendeak, agintariek aurrenik, jakin beharko lukete oraindik ikerketa asko egin beharra dagoela eta udalik udal *Onomasticon Vasconiae* gisako lanak gutxi direla. Esan behar dut horretan eredu izan direla kronologikoki hasita: Pasaia, Andoain, Eibar, Arrasate, Zumarraga-Urretxu eta laster Bergara eta Galdakao.

1996an Euskaltzaindiak Gasteizen antolatutako **I. Toponimia Jardunaldietan**, honako txostena aurkeztu nuen: "Euskal Komunitate Autonoman eta Nafarroan toponimoen ofizialtasun eta seinalizazioaz legeria eta beronen apli-

kazioa". Egia esan, zorionez, asko aurreratu da handik geroztik, hala nola, administrazioen arteko aplikazio arazo zenbaitek jarraitzen dute; besteak beste, sare bateratu bat, administrazio artekoa, alegia, beste zenbait zerbitzutan bezalaxe, bata bestearekin kateaturik dagoela ohartu behar gara. Beste zerbitzu publiko gehienek bezala harreman hestuekin lotuak daudela bata bestearekin eta euskasraren ofizialtasun eta normalizazioaren bideak elkarren jakinean egin behar direla. Hori da orain falta zaigun erronka nagusia. Gainera, aipatu diren erakundeez gain, EITB-k eta komunikabide publiko nahiz pribatuek ere badute zertan lagundu edo parte hartu. Hiritarrak ere, azken baten, erabiltzaileak dira eta horiek ere jakitun egon behar baitira. Irakaskuntza mundua ere hor dago, berez testu liburu eta besterekin, eta hedatzaile aparta da. Eginkizun honek, badu, oraindik, urteetarako lana, jende asko konturatzen ez bada ere. Administrazio maila desberdinei dagozkien ikerketarako baliabideak ematea, lehenik, eta, ondorioz, irizpenak eta izendegiak ematea dagokion batzorde edo lan-talde akademikoari. "Do ut des" argi bat, beraz.

Badirudi Eusko Legebiltzarraren lehen legegintza honetan onar daitekeela, Euskadiko Udal Legea. Espero dut, eta horretaz zerbait idatzi dut, ez dadila gertatu Nafarroako "Ley Foral Municipal" delakoaz gertatu dena, alegia, bere bostehun eta ez dakit zenbat artikulutan, hitz bat ere ez agertzea udal mailako euskararen ofizialtasun edo normalkuntzaz. Lotsagarriago oraindik, kontutan badugu Nafarroako Foruak, indarrean dagoena bestalde, bere 48. artikuluan (6. eranskina) aipatzen duela etxearen izena zaintzea ugazabeei/jabeei dagokiela, kasu honetan jabeak/ugazabak gehienetan udalak izanik, badirudi hori ahantzi zaiela nafar legegileei. Ez dadila gauza bere gertatu hemengo mendebaldeko hiru herrialdetako Udal Legea egiten denean, euskararekiko kapitulurik ezaz gure auzo, kale izen eta gainontzeko toponimiaren arta ez izatea.

Uste dut, bestalde, gaurko Ikastaro honek izango duela jarraipenik, Nafarroan, baita geroago ere. Ikastaro hauen fruituetariko bat lehen aipatu dudan administrazio arteko sare eta kate bat sortzea, ez bakarrik teknikoek, zuok, elkarrekin harremanak izateko, baizik eta administrazioen arteko arazoak bideratzeko. Horretarako, agintari berriak haintzakotzat hartu beharko dute Euskara Zerbitzuei aitormen oparo bat emanez, ikerketa bultzatuz eta lege garapena zehatz alor guztietan eginaz. Ez bakarrik, Legebiltzarrean, baita Batzar Nagusietan eta, ondorioz, Udal Ordenantzetan ere. Ez horrenbeste deklarazio eta adierazpen hitz handikoetan, baizik eta zehaztapen teknikoetan.

EUDEL-EKIKO HITZARMENA DELA ETA EUSKALTZAIN- DIAREN TOPONIMIA LANTALDEAREN PLANGINTZA

Bilbo, 1999-VI-04

*Mikel Gorrotxategi,
euskaltzain urgazlea eta
Onomastika batzordeko idazkaria*

EUDELek eta Euskaltzaindiak hitzarmena sinatu dute aurten hiru lan nagusi gauzatzeko:

- Autonomia Erkidego biztanle entitateen izenak finkatzea (udal, kontzeju eta auzo).
- Kale izendegietako arazo nagusiak aztertu eta irtenbideak proposatzea.
- Erkidegoko toponimia txikia normalizatzeko irizpideak finkatzea.

1986an HPSrekin batera argitaratutako izendegia (*Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Herri Izenak*) eguneratu beharra ikusi zen, batetik izen berriak gehitu direlako, eta bestetik azken urteotan egindako ikerketa eta finkatutako irizpideen arabera orduko izen batzuk berraztertu behar direlako.

Kasu batzuetan orduan ez zegoen informazioa lortu dugu, esaterako *Gal-damezko La Aceña* auzoan, *n.t.e.e.c./e.d.e.b.e.* agertzen zen, geroago jakin baitugu izen zahara *Atxuriaga* dela.

Besteetan zaharkituriko informazioa geneukan eta geroago egindako ikerketek euskarazko izen egokia argitu digute: *Egilatz*, *Txintxetru* edo *Subilla*, proposaturiko *Egiraz*, *Intxetru* edo *Subilana* izenen ordez.

Azkenik zenbait kasutan badirudi egindako proposamen batzuk berraztertu beharko lirakeela, hara hor *Batxikabo*, *Artzentaless* edo *La Puebla de Labarka*.

Bigarren lana kale izenak normalizatzean antzeman daitezkeen arazo nagusiak, baina inongo udalerriko kaletegia aztertu gabe (horretarako tokian tokiko udalbatzarrekin egin behar da hitzarmena), zerrendatzea eta irtenbideak proposatzea izango da.

Azkenik, toponimia txikia finkatzeko erabili beharreko irizpideak finkatzeko proposamena gauzatu du eta proposamen horiek Onomastika batzordeari aurkeztu onikusia eman diezaizkien.

Helburua, azken finean, erakunde guztietan irizpide beretsuak erabiltzea izango da, tokian tokiko berezitasunekin, noski. Horretarako irizpideak ez ezik, trerabak ere nahitazeko ikusten du batzordeak eta hori da ikastaro honen helburua.

IZENAK NORMALIZATZEKO URRATSAK

Izenak normalizatzean segitu beharreko irizpide linguistikoak Patxi Salaberrik jorratuko ditu eta ez naiz horretaz arituko, finkatzeko proposamena egin aurretik egin beharreko lanaz baizik.

Euskal Herrian etxegintza dela eta etangabe ari dira kale eta auzune berriak eraikitzen, edota industrialde, kiroldegi edo horrelakoak, eta egoera honek izen batzuk toponimo txiki eta ezezagun izatetik handi eta ezagun izatera eramaten ditu. Horrela, *Bidezabal*, Getxoko kale izen berri eta ezezaguna zen Metrobilbaok bertan geltokia, eta bi urtez bidaia amaiera, jarri zuen arte. Era berean, pentsatzekoa da *Bagatza* izena, aipatu lurpeko horren bigarren lineako geltokia eta Barakaldoko auzoa, ezagun egingo dela laster. Donostian, *Garbera* edo *Illunbe* izenak aipatu ahal dira, oso denbora gutxian berebiziko garrantzia hartu dute eta.

Izendapen berrian antzineko leku izena gorde nai bada, eta badirudi hori dela zentzuzkoena, ikertu beharko da, zein den izen egokia eta bere idazkera jakiteko.

Lehenengo eta behin jakin behar dugu zein den (edo diren) gaur egun erabiltzen den izena. Horretarako fidagarrienak, nola ez, adineko pertsonak izaten dira, ahal dela auzokoak noski. Dermio hori mendian baldin bada artzainak egokiagoak izango dira nekazariak baino eta azken hauek baserrietxeetan bizi baina kanpoan lan egiten dutenak baino.

Zein den egungo izena eta ebakera dakigula leku hori historian zehar izendatzeko erabilitako izen edo izenak bilduko ditugu. Bizkaiko kasuan lehen-dabiziko urratsa XVIII. mendeko Bizkaiko Fogerazioak aztertzea da. Gipuzkoan XIX. mendeko *Nomenclator de la Provincia de Guipúzcoa*, nahiz eta bizkaieraz egiten den eskualdean arazoak eman, gipuzkera batuan burutu baitzuten, besteak beste, *barri* guztiak *berri* bihurtuz. Araben G. Lopez de Gureñuren *Toponimia Alavesa* liburu bikaina erabili beharko da. Bigarren ikerketa lekua Katastroa da, ahal dela mende hasierakoa eta azkenik lur eremu horietako jabetza eskriturak, inportanteenak, baina askotan irakurtzeko arazoak izaten dira. Zer esanik ez, ikerketa monografikorik egotekotan bere biziko laguntza izango dira.

Baina egungo izenek arazo bi izan ditzakete, batetik jatorrizko izenaren aldaera laburtu eta desitxuratuak izatea; *bisku*, *Iratzegibeaskoa* mendez mende, edo azken urteotako ordezkapenak, maiz Jose Luis Lizundiak aipatu duen be-

zala, santuen izenez ordezkatuak. Hor ditugu esaterako: *Santa Eufemi(a)*, *San Donato* edo *San Pedro*, mendiak jatorriz *Urregarai*, *Beriain* eta *Beratz*.

Ordezkapen hauek askotan mende honetan gauzatu dira, eta askotan gauzatzen ari dira eta euskaldunek jatorrizko izenari eusten dioten bitartean erdaldunen artean izen berria zabaltzen den bitartean. Adibide ezagunak dira Bizkaiko *Urgoiti* edo *Beteluri* izenak, azken urteotan *El Gallo* eta *Venta Alta* eta inoiz *Goiko Benta* izenez ezagutzen, nahiz eta inguruko euskaldun askok izen zaharra erabili.

Egungo forma laburtuak erabiltzea ez da gomendagarria eta *Artia*, *Akar-teixa* eta *Iturtze* moduko idazkerak ez dira egokiak, osoagoak diren *Arteaga*, *Akartegieta* eta *Iturritza* baizik. Beraz, egungo izena eta historian zehar erabilitakoa erabili beharko ditugu euskarazko izen egokia hautatzeko. Zentzuzkoena, zer esanik ez, ikerketa hori burututakoan ebazpen proposamena eta zergatiak Euskaltzaindiko Onomastika batzordeara igortzea da, azken honek erabakia har dezan.

Adibide praktikoa emateko *Isusquíza* edo *Isúsquiza* aipatu ahal dugu. Bizkaian hiru lekutan agertzen da, Gordexolan, Plentzian eta Arratzun. Badirudi *itsuski*, landare bat, gehi -tza ugaritasun atzizkia dugula eta *Itsuskitzea* izan beharko dela. Gordexolan euskara galduta dagoenez, ezin jakin nola ebasten zuten, azentua salbu, egun *isúskiza* (/i;ú'sa/) baita. Plentziakoari dagokionez egun erabiltzen den izena *Abanico* dugu, bertan egindako txalet-hiria izendatzeko erabilia, euskaldun askok *Abanikue* bihurtua. Zorionez, banaka batzuek jatorrizko izena darabilte: *Isúkitze* (/i;úkice/). Honek argi adierazten du *Isuskitzea* dela ofizialdu beharreko aldakia eta ez udalak jarritako *Isuskiza*. Arratzuakoa berriz, egun *Itxuskitzea* (/i'čú'ca/) esaten dute, jatorrizko *Itsuskitzaren* aldakia. Gordexolakoa Plentziakoaren arabera normalizatu beharko dugu, hurbilago baitago azpieuskalki horretatik.

KALE IZENAK NORMALIZATZEKO ARAZO NAGUSIAK

Egoera desberdinak badaude ere, kale izenen izendapenak direla eta zein izan behar den prozedura egokiena azaltzen saiatuko naiz. Zenbait kasutan, egokia izan liteke udal prozedura bakar bat finkatzea, aurrerantzean egingo diren izendapenak arautzeko. Tamalez, badakit zenbait lekutan euskara zerbitzua aintzat hartzen bada, askotan etxegintza saileko tenkokrata ez jakin baten esuetan dagoela auzia.

IRIZPIDEAK

Lehentasuna eman beharko zaie tokian tokiko leku izenei, batetik Euskal herriko ondare kulturala direlako eta bestetik izen neutroak diren aldetik ez dutelako zeharkako arazorik sortzen.

Leku izenak, Euskararen legean agertzen denari jarraiki jatorrizko hizkuntzaren idazkeran emango dira, izen bikoitzak tradizio bikoitza dagoen kasuetara utziz, *Areeta/Las Arenas* esaterako, baina ez *Retuerto* edo *Bagatza* izenen kasuetan.

Bitasuna saihesteko aurreko irizpide hori, ahal dela, izendapen guztietara zabaldu behar dugu, batetik erabilterrezagoak direlako, eta gure eginkizunetako bat jendeari erreztasunak ematea izan behar baita, eta bestetik izen bikoitzak emateak bere biziko arazoak eman ditzakeelako. Batzuetan egoera diglosikoa dela medio izen bat baztertuko da, euskarazkoa ea beti, arazoak emanez, batzuek euskarazkoa erabiliko baitute eta beste batzuek gaztelaniazkoa. Adibide bat ematearren Getxoko Elexalde inguruko kale berriena da, non txori izenak hizkuntza bietan eman dituzten; *Calle del Tordo/Zozo kalea*. Inoiz izenaren zati bat amankomuneko baldin bada eta generikoa itzultzen denean, erdipurdikako izen bitxiak sortzen dira: *Avenida Algortako*, *La calle del Bertsolari*, etab.

1. KALEAK, PLAZAK ETA PARKEAK

Toponimia finkatzeko arau nagusiak Eusko Legebiltzarreko 1982.eko azaroaren 24ko legeak arautzen ditu. Lege horren arabera Euskaltzaindia da toponimia finkatzean erakunde aholkulari bakarra Autonomi Erkidegoan eta izenak jatorrizko hizkuntzaren idazkeran eman behar dira. Hori da izendegi hau gauzatzean erabili den irizpide nagusia.

Aurrekoari lotua eta kaleizendegien erabilera ikusirik, erabiltzaileari erreztasunak ematea ere badenez gero, izenak finkatzean erabilgarritasuna bilatzen saiatu gara. Hori dela eta, izenak bortxatu gabe, hizkuntza bietan ahalik eta hurbilenekoak aukeratzen ahalegindu gara. Arrazoi beragatik inoiz azaltzen diren izen luzeak eta erabilgaitzak, bereziki generikoa baduten izenekin, erraztera jo dugu. Generikoa dutenek arazo bi sortzen dituzte: batetik izenak bikoizten dira, generikoak desberdinak izateaz gain joskera dela-eta lekune bana hartzen dutelako (*Calle del Doctor Begiristain/Begiristain Doktoarearen kalea*); bestetik generiko horiek gehienetan eguneroko jardueran desagertu egiten dira, jendeak izen berezia baino ez baitu erabiltzen. Hori dela-eta, nahiz eta proposamenean azaldu, izen ofiziala aldatzea erakunde honi ez, baizik udal agintariei baitagokie, izen generikoa kentzea proposatzen da, hortaz *Begiristain kalea/Calle (de) Begiristain*.

1.1. Izen bereziekin

Egitura orokorra honako hau da: [*Izen berezia + kalea*]. Adibidez: *Aizkorri kalea*, *Ibaeta plaza*, *Julio Urkixo kalea*, *Toribio Altzaga kalea*, *Txurruka*

kalea, etab. eta ez **Aizkorriren kalea*, **Ibaetako kalea* edo **Julio Urkixoren kalea*, etab. Beraz ez da gaztelaniaz agertzen den *de* preposizioa itzuliko: *Calle de Cervantes/Cervantes kalea*.

1.2. Izen aurruntekin

1.2.1. Izen elkartu gisa

Kale edo plaza izenaren lehen osagaia izen arrunt bat izan daiteke. Gaztelaniazko deituran, batzuetan singularra eta plurala bereizten badira ere, euskaraz, oso ongi dokumentaturiko usadio jator baten arabera, izen elkartu gisa ematearen aldeko gara, hots, inolako artikulua ez kasu markarik gabe: *Konstituzio plaza*, *Foru pasealekua*, *Soldadu plaza*, *Merkatari plaza*, *Portu kalea*, etab. Eta ez **Konstituzioaren plaza*, **Foruen pasealekua*, **Merkatarien plaza* edo **Portuko kalea*.

1.2.2. Genitibo markarekin

Hala ere, zenbaitetan, ez zaigu iruditu bidezko artikulua ezabatzea. Izan ere, batzuetan, sintaxiak hala eskaturik, genitiboaren hondarkia nahitaezko gertatzen da: *Etxebarritarren plaza/Plaza de los Etxebarri*, *Euskal Kortsarioen kalea/Calle de los Corsarios vascos*, esaterako.

Genitiboaren hondarkia ezin ezaba daiteke, bestalde, deizioaren mugatutasunak artikulua azaltzea eskatzen duenean. Hori gertatzen da, adibidez, izen bereziaren ondoan izen generikoa azaltzen denean, bereziki pertsona izenaren ondoren lanbidea edo gainerako izen edo adjektibo deskribatzailearen bat dugunean. Adibidez: *Arbos Musikariaren pasealekua*, *Jose Eloseggi Alkatearen kalea*, *Marañon Doktoarearen kalea*, *Jauregi Jeneralaren plaza*, e.a.

Hala ere, erabilerak generikoa desagertarazi duenean hobe da izen berezia soilik ematea: *Jose Eloseggi kalea*, *Marañon kalea*, etab. Ez da horrelakorik proposatzen generikoa kentzea nahasgarria izan daitekeenean, izen berezia errepikatzen den kasuetan esaterako.

Genitibo marka ezin ezabatua gertatzen da, orobat, artikulua nahitaezkoa dugunean: *Abuztuaren Hogeita Hamaikako kalea* (1), *Alfontso VIII.aren kalea*, *Ternuako Arrantzaleen kalea*.

(1) *Abuztuaren Hamaika kalea* ere egokia bada ere, gaur egun usadio zabaldiena denbora marka erebiltzea denez horrela proposatzen da.

1.2.3. *Leku-genitiboarekin*

Batzuetan —kasu gutxitan, egia esan— deizioak leku bati erreferentzia egiten dionez gero, *-en* genitiboaren ordez, *-ko* leku-genitiboa izango dugu *Ategorrietako galtzada zaharra, Urdinzubiko kalea, Amarañañeko kalea, Narros Etxeko kalea*, etab. Nongo kasua erabiliko da bestalde zubi edo tunel izendatzean, hori baita erabilera jatorra.

1.3. **Kale izena toponimo zahar bat denean**

Horrelakoetan izena bere horretan errespetatzen da, forma ihartutzat emanez. Horrek esan nahi du batzuetan artikularekin agertuko dela eta beste batzuetan artikulurik gabe. Nolanahi ere, kasu batean eta bestean hitza oso-osorik gordeko da, izen berezia balitz bezala. Horrela, *Abandoibarra* edo *Aranbizkarra*, alde batetik, eta *Illunbe* bestetik. Hala ere, artikulua agertzen bada deklinatzean Bizkaia moduan egingo da: *Abandoibarra, Abandoibarreko, Abandoibarretik*, e.a.

1.4. **Bide osagaia duten kaleak**

Hauetan, bide osagaiak aski informazio ematen duenez, kale hitza ez idaztea gomendatzen da. Batzuetan artikularekin emango da: *Amezketabidea, Agitibidea*, etab., eta beste batzuetan artikulurik gabe: *Aldapabide*, adibidez. Horren arazoa berezko erabilera da, bide-dun toponimoak horrela ibiltzen direlako. Oro har, toponimoa berria denean artikularekin emango da.

Bide osagaia aurreko hitzari itsatsia idatzi behar da, *Altxuenebidea, Errotazarbidea, Murgilbidea*, salbu ezkerreko elemento hori bi hitzez edo gehiagoz osatua egon edo gaztelaniazkoa denean. Adibidez: *Elbira Zipitria Andereñoaren bidea* edo *Aingeru Zaindarien bidea*.

2. **PERTSONA IZEN-DEITUREN GRAFIA**

Dudarik ez dago arlo hau dela korapilatsuen eta zailena ebazteko. Bidezkoena hizkuntza bakoitzari berea ematea denez deiturak jatorrizko hizkuntzaren idazkeran emango dira. Hala ere Espainia edo eta Ameriketako euskal deitura dutenak ugariak izanik gogorra litzateke haiei ere aldatzea, *Bolivar askatzailea*, esaterako, eta horrelakoetan bere horretan uztea proposatzen da. Gauza bera gertatzen da garaikideak izan eta deitura euskalduntzeko aukera edukirik ere

euskaldundu ez dutenekin (*Gabriel Celaya* edo *Pio Baroja* modukoak). Ponte izenen kasuan berriz jabeek erabili zuten moduan jartzea erabaki zen, izen bikoitza, hala erabili zutenentzat gordez.

Euskal Herriko zenbait pertsonaia historikoren kasuan bidezkoa da euskaraz ematea, *Bernat Etxepare*, konparaziorako. Ez da gomendatzen mende honen hasierako idazkera. Beraz, *Uriarte'tar Joseba Andoni*-ren ordainez, *Jose Antonio Uriarte* emanen da.

2.1. Erdal izenak

Oro har, erdal izen-deiturak, dauden-daudenean utziko dira: *Calle Arturo Campion/Arturo Campion kalea*.

Dena dela, azentuari dagozkion seinu diakritikoak, hots tilde ikurrak ezabatzea proposatzen dugu.

2.2. Euskal izen-deiturak

Gorago esan bezala euskal deiturak euskal ortografiarekin eman dira, soil soilik. Ponte izenak, berriz, bere horretan utzi dira, idazkera bikoitza pertsonaia historikoa izan edo hala erabili zutenentzat utziz. Beraz: *Calle Isidro Antsoarena/Isidro Antsoarena kalea*, *Calle Javier Barkaiztegi/Javier Barkaiztegi kalea*, baina *Calle Bernat Etxepare/Bernat Etxepare kalea*, *Calle Juana de Albret/Joana Albret kalea*, etab.

3. EUSKAL LEKU IZENEN IDAZKERA ETA ERDARAZKO KALE IZENEN ITZULPENEA

Euskal toponimo batez osatutako izenak, euskal grafiara egokitu dira, izen bakarra emanez: *Zarautz*, *Zuhatzu*, *Munaitz*, etab. Hala ere, hizkuntza bietan tradizioa desberdinak daudenean izen bikoitza proposatzen da: *Donostia/San Sebastián* esaterako.

Erdal izen arruntak (*Ferrerias*, *Los Pinos*, *Astilleros*, etab.) ihartu gabe daudenean, euskarara itzuliko dira: *Oletak*, *Pinueta*, *Ontzitegiak*, etab.

Badira, ordea, beste deitura berriagoak, erakunderen bati dagozkionak, *Jabonera de Deusto* esaterako, hauek izen berezizat har daitezke eta, horrenbestez, tradiziorik ez den bitartean, ez dugu ukitu beharrik ikusi.

4. SANTU IZENA DUTEN KALEAK

Gure tradizioan, bai literaturan, bai onomastikan eta bereziki hagioponimian horrela agertzen diren santu izen zaharrekin, aposizio honetaz horniturik azaltzen direnekin (2), *Done*, *Dona* erabiltzea gomendatzen da, *San*, *Santa* adjektiboak gainontzekoentzat utziz. Hortaz, *Done Bladi kalea*, *Done Bikendi kalea*, *Done Joan kalea*, baino *San Frantzisko kalea*. Kristoren ama izendatzeko *Andre/a Maria* hobesten da.

5. KALE EDO PLAZA HITZA AIPATU GABE ARITU BEHAR DENEAN NOLA JOKA?

Errotulaziotik aparte, “kale” hitza eman gabe hitzegin nahi denean, toponimoak, izen sintagma normalizat deklinatu beharko lirateke: baldin artikulua badute, artikularekin (*Harrian*, *Harriko*, *Harritik*, etab.) eta ez badute, gabe, izen propio gisa: *Gaztelubiden*, *Gaztelubidetik*, etab.

Pertsona izena duten kaleetan ere, izen hori osorik hartuko da: *Antonio Gaztañetan*, *Nemesio Otañotik*, etab.

Baina izen elkartu modura eratutako izenetan (*Konstituzio plaza*, *Foru pasealekua*, *Bake plaza*, etab.) arazoa sortzen da. Izan ere, kasu batzuetan pluralean eman beharko litzateke: *Foruetan*, beste batzuetan berriz singularrean *Konstituzioan*. Beste zenbaitetan, azkenik zentzugabekeria litzateke generikoa kentzea: *Bakean*, *Geltokian* edo *Eskolan* esaterako. Hortaz, izen elkartu disa emandako kale izenetan ezin da generikoa (*kale*, *plaza*, etab.) kendu: *Posta kalea*, *Foru plaza*, *Iturri kalea*, etab.

Bestalde, eta hau inportantea da, sarritan helbideak jartzerakoan, ez da “kale” hitza agertzen. Orduan, absolutiboan emango da kalean: *Done Bladi*, 4; *Joan XXIII.a*, 3; etab. *Baina Konstituzio plaza*, 5; *Foru pasealekua*, 12, etab.

6. AZKEN OHARRAK. XAFLEN DISEINUA BIDERATZEKO IRIZPIDEAK

Euskara eta gaztelania, hitz ordenari begira, aski desberdinak direnez, biderik egokiena hizkuntza bakoitzari bere xafila eskaintzea da. Leku askotan plaka bakar batean eta sarritan elkarren hurren eman dira kale izenak *Avenida de*

(2) *Dona*: Alodia, Gracia/Garazi, Julia, Maria, Mariana, Pia. *Done*: Agustin, Bikendi/Bizente, Blas/Bladi, Emiliano/Millan, Erroman, Eztebe, Felix, Fruktuoso/Murtuts, Jakue (Donejakue bidea Compostelara zihoan bidea izendatzeko), Joane (Donibane), Julio, Jurgi, Kosme, Kristobal/Kristobare, Laurendi, Leon, Martie/Martin, Martzelo, Meteri, Mikel, Paulo, Pelaio, Petri, Salvatore, Saturdi, Sebastian, Tomas eta Zipriano.

Algortako etorbidea, esaterako, erabilera okerrak (batez ere gaztelaniaz) sortuz: “*vivo en la calle Algortako*”. Beraz egokiena holakoetan xafla bitan ematea da.

Bestalde, euskaraz artikulua eta kasu marka hondarkian bat eginik azaltzen baitira, ezin daitezke bi osagaiak berezirik idatzi, gaztelaniazko *de* preposizioarekin gertatzen denaren kontra. Hori dela-eta *Antso Jakituna-ren kalea* moduko idazkerak okertzat aitortuko ditugu. Holakoetan bereiz liteke *Antso Jakitunaren kalea* moduko idazkerak erabiliz, baina sistema honek ez luke balioko pluralerako, pluralean artikulua eta genitibo marka bat eginda agertzen baitira. *Nafarroako Errege-erreginen kalea*-ren kasuan, adibidez. Aurrekoa ikusita bereizketarik ez egitea prosatzen da.

TOPONIMIA NAGUSIA NORMALIZATZEKO IRIZPIDEAK MINTZAGAI

Bilbo, 1999-VI-04

*Patxi Salaberri Zaratiegi,
euskaltzain urgazlea
eta Onomastika batzordekidea*

1. IKERKETA EGIN BEHARRA

Toponimo nagusiak finkatzeko orduan maiz ikerketa egin behar izaten dugu, aniztetan datuak ez baitaude irispidean. Hemen oraindik euskaldunak diren alderdiak eta hizkuntza galdu dutenak bereizi beharko ditugu lehenik, ez baita gauza bera, adibidez, Nafarroako Erdialdeko edo Araba Lauko —gaurdainoko “Lautada” da hau— ibar batez edo herri izen batez mintzatzea, irizpena ematea eta Gipuzkoako Goierri aldeko edo Bizkaiko Durangaldeko beste batez mintzatzea. Orobat erran daiteke Iparraldeaz

Eremu euskaldunaz ari bagara, datuak usu eskumenean izanen ditugu eta konponbidea, hein batean, jendearengana joan, galdetu, eta finkatu irizpide zenbaiten arabera erabakiak hartzea izanen da. Nolanahi ere, euskarak bizitu duen eta oraindik ere neurri batean —eskualdeen araberako kontua da hau, hein batez— bizi duen egoera ez-ofizialarengatik, bilakaera azkarra izan du, irakaskuntzako, administrazioko, komunikabideetako hizkuntza izatearen galga izan ez duelako, eta beraz, informatzaileek eman diezazkiguketan datuak aintzakotzat hartu behar badira ere, ezin dira beti lege izan.

Izenek maiz bukaerako *-a* berezkoa galdu dute, hizkera arrunteko hainbat hitzek bezala (*gauz bat, gauz bet/Donosti*), eta bortizki laburtu dira, aldameanean erdarazko izen oro har kontserbatzaileagoa baldin bazuten ere. Erraterako, *Olazti* edo *Otsagi* erraten zaie Nafarroan erdaraz *Olazagutia* edo *Ochagavía* deitzen diren herriei, eta ez bakarrik deitu; euskaldunok ere, mintzatzerakoan, *Oláztí* eta *Otsági* —edo *Otxági*— ibiltzen ditugu normalean eta lehena oraindik eremu euskaldunean egonik, erabat natural gertatzen zaie inguruetako euskaldunei. Bigarrenaren kasua bestelakoa da, euskaraz bakarrik zaharren batzuek egiten baitute. Baina honetaz aitzinago mintzatuko gara.

Hortaz, ahozko bilketa egin beharra dago, baina hau ez da aski. Honetaz gainera literaturaz baliatu behar gara, hemen maiz datu erabilgarri asko azal-